

**TENDER LOVING CARE • Erresuma Batua**

Mike Leigh (on line) (zuzendari eta gidoilaria)
Marion Bailey, Alice Bailey Johnson, Paul Jesson (antzezleak)
Georgina Lowe (ekoizlea)



Filmeko protagonistak Donostian. Mike Leigh, berriz, bere etxetik telematikoki izan da prentsaurrean.

JORGE FUENBUENA

Zaintzaren aldeko begirada samurra

SERGIO BASURKO

Mike Leigh, Urrezko Palmaren irabazlea Cannesen eta Oscar sarietarako izendatua, bere film luze berriarekin itzuli da, *Tender Loving Care*; oraingoan, zaintzaren gaiari helduz mundu garaikidearen bere esplorazio buruargiarekin jarraitzeko.

Amy (Kate O'Flynn) eta Rosie (Alice Bailey Johnson) dira protagonistak, bi lagun min eta gizarte-langile. Egunero besteen arazoei aurre egiten die-

te, baina beren bizitzek ere badituzte arrakalak. Lana eta adiskidetasuna dira bi emakumeen arteko loturaren oinarriak, eta Leigh-ek horien bidez erakusten du zaintza ez dela beti norabide bakarrekoa: besteei laguntzen dietenek ere laguntza behar dute.

Mike Leigh-ek, beste behin ere, gizatasunaren ikuspegitik begiratzen dio errealitateari, eta, ezin bestela izan, britainiar umore beltz bikainaren hainbat ukitu ere eskaintzen ditu. Zuzendariaren aburuz, "espero

du filmak ihesbide erromantiko gisa ez ulertzea; errealitatearen ikuspegia gogorra da. Errukiarekin du zerikusia, eta hori garai hauetan beste edozein garaitan bezain garrantzitsua da".

Ildo horretan, Paul Jessonek, Amyren aitaren papera egiten duenak, adierazi duenez, "elkarri lagundu behar diogu, elkar zaindu behar dugu, baita ezezagunak ere. Zaila da kalean laguntza eskatzen ari den norbaiten ondolik pasatzea, mundua hain erasokorra denean, diru-kopuru izugarriak dituzten pertsonen kontrolatzen dutenean eta herrialdeak modu basatian gobernatzen dituztenean. Garrantzitsuagoa da begiak ez ixtea eta belarriak ez estaltzea, guri pertsonalki gertatzen ez zaigulako bakarrik".

Zuzendaria, proiektzioaren ondorengo prentsaurrekora bide telematikoz konektatu dena, bere gidoiaren eta lan egiteko moduaren askatasuna aldarrikatu du, pertsonaiei interpretatzeko askatasuna emanez. "Nire filmak gidoirik idatzi gabe egiten ditut; ez naiz gidoi batetik abiatzen, eta, bai, inprobisazioak zeresan handia du pertsonaien bilakaeran eta harremanetan. Gidoia inprobisaziotik sortzen da".

Hurrengo belaunaldien etorkizunari buruz galdetuta, Leigh-ek adierazi du "tunelaren amaieran argia ikusi eta baikorra izan nahi duela. Seme-alabak eta bilobak ditut. Nire biloba gazteenak bi urte ditu eta XXII. mendera arte biziko da; orduan, nire adina izango du. Espero dut mundu hori mundu ona izatea eta haren bizitza positiboa izatea. Bestalde, ez da erraza ikuspegi positiboa izatea. Munduan gauza negatiboak gertatzen dira. Ez da dena zuria ala beltza".

Ildo beretik, Marion Bailey-ek, Amyren ama interpretatzen duenak, "moralki positiboak izateko betebeharrari" buruz hitz egin du, nahiz eta egun hori "zaila" dela uste duen. "Hogeita hamar urte genituenean pentsatzen genuen mundua aldatuko genuela, gauzak hobera joango zirela, era guztietako errepresioak eraitsi-ko genituela eta bizitza hobea izan-

The people who care for others

Mike Leigh brings *Tender Loving Care* to the Official Selection, placing care and human connection at the heart of his latest film. Amy, nearing 40 after a broken relationship, seeks refuge with her friend Rosie. Both work in social services, caring for vulnerable people, while Amy also faces the ageing of her parents. Blending social realism, tenderness and wry British humour, Leigh explores the delicate webs that help people weather life's storms. The film shifts between professional and personal care, posing the poignant question: who cares for the caregivers? Instead of simple solutions, Leigh uncovers hope in acts of compassion and in the chosen families we build. If this is indeed his final film, Leigh leaves us with a gentle, profoundly human meditation on ageing, loneliness and our shared need to look after one another.

go genuela. Garai hartan norbaitek gaur ikusten ari naizena kontatu izan balit, harrituta geratuko nintzatekeen".

Agerraldia azkentze aldera, Leighi galdetu diote ez ote den hau bere azken filma izango, zuzendariak azaldu du mugikortasuna nabarmen zailtzen dion arazo mediko bat duela -miositisa- eta, bai, litekeena dela hau izatea bere azken proiektua.

ISABEL COIXET Kaosaren diziplina La disciplina del caos

COLLAGE

ERAKUSKETA. EXPOSICIÓN.
2026.09.11 – 2026.11.01


SAN TELMO MUSEOA
Zuloaga plaza, 1. 20003
Donostia / San Sebastián
www.santelmomuseoa.eus
@santelmomuseoa

STM
San Telmo Museoa

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

donostia
kultura

SSIFF
Donostia Zinemaldia



Leggermente asimetrica,
Xehetasuna/detalle 2025a